

LAB SINDIKATUAREN
IBILBIDEA ETA LORPENAK
OSASUN MAHAIAN

Osasun sistema publikoak eta Osakidetzak behar dituen eraldaketak lortzeko neurriak borrokatzea izan da LABek Osasun Mahaian bere buruari jarritako egitekoa. Osasun Mahaiaeren prozesuan eragin dugula baieztatuz, modu labur batean bada ere hau izan da ibilbideak eman duena:

OSASUN SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA

Boto partikularra aurkeztu zuen LABek, diagnostikoaren osotasunak asebetetzen ez zuela adierazi eta osotasunari ezezkoa emanez.

Txostena nabarmen hobetzea lortu bagenuen ere gabeziak zituen hiru arlotan: pribatizazio politiken ondorioen azterketan, osasun sistema publikoa indartzeko beharrean eta osasun sistema publikoko langileen egoeraren analisisian.

BALIO ETA PRINTZIBIOAK

LABek desadostasun erabatekoa adierazi, eta dokumentua itxi zen bileran ez zuen parte hartu.

Dokumentuak ez zion heldu nahi eskusibotasunari, sistema indartzeko ezinbesteko neurria gure ustez, ezta osasun zerbitzua titularitate publikotik baliabide publiko eta propioekin eskaintzeari ere, nahiz eta esternalizazio-pribatizazio politikak izan diren Osakidetza gainbeherara eramane duen arrazoi nagusietako bat. Gerora finkatu behar ziren estrategia egokiak erabakitzeke funtsezko elementuak zirela adierazi genuen.

ESTRATEGIEN FASEA

24 lantaldeetatik 10etan parte hartu dugu. Ekarpen eta proposamen asko egin ditugu guretzat ezinbestekoak izan diren eremu eta gaietan.

Propositiboak izan gara lantaldeetan, dauden bi eredu antagonikoak azaleratu eta parez pare jartzea lortu dugu eta lobby pribatizatzailearekin zein euskararen kontrako eragilean aurrean disputa egin dugu.

1- PRIBATIZAZIOAREN GAIA:

Korapiloa ebatzi gabe egon da Osasun Sailak azken momentuan lobby pribatizatzailearekin batera helburu eta neurri konkretuak inposatu dizkigun arte. Horrek hurrengoetan eragin du:

- **Kolaborazio publiko-pribatuari eustea erabaki dute** lantaldean zerbitzua baliabide publiko eta propioen bidez emateari lehentasuna ematea eta sektore pribatuarekiko mendekotasuna murrizteko helburua eta neurriak adostea gailendu bazen ere.
- **Zerbitzu-zorroaren** lantaldean erabateko adostasuna zuen helburua eta neurriak **ezabatu** dituzte. Osakidetzaren zerbitzu-zorroa indartzeko azpikontrataturako, itundutako edo barne hartu gabeko zerbitzuen egungo egoera diagnostiko baten bidez aztertzea eta **publikazio-plan progresibo baten bidez integratzea** jasotzen zuen horrek.
- **Eskusibitateari loturiko edozein proposamenen aurka** egin dute. Pertsonen politikako lantaldean arduradun-lanpostuetarako merezimendu gisa

dedikazio eskusiboa baloratzea adostu bagenuen ere, behin-betiko testuan dedikazio eskusiboa baztertu da.

2- LANGILEEN ARLOA

LABek Osasun Mahaian ateratako neurriak mahai sektorialera eramane behar direla adierazi du hainbatetan.

Pertsonen politiketan lorpenak:

- **Plantillaren dimentsionamendua:** Egungo eta etorkizuneko beharretara egokitutako plantilla erreala dimentsionatzea, faktore demografikoak eta teknologikoak kontuan hartuta, ekitatea bermatuz eta sistema publikoaren autosufizientzia lortuz.
- **Hautaketa- eta hornidura-sistema berri bat diseinatzea, plantilla egonkortzen duten** eta talentua fidelizatzen duten **ekimenen bidez**, sisteman prestatutako profesionalak lehenetsiz kontratu estrategiko egonkorrekin, zeinek euskal osasun sistema publikoan jarraitutasuna bermatuko baitute.

- **Kontratazio-politika eraldatzea, kontziliazioa** eta ongizatea **kontuan** hartuta, lehen mailako arreta eta arreta komunitarioa lehenetsiz, epe luzeko iraupena sustatzea, noranzko biko eta be-launaldi arteko harreman-espazioak bultzatuz (mentoretza).
- Laneko datu propio guztiak eskuratzeko **aplikazio integratuak eta kanal anitzekoak modernizatzea eta bateratzea**, lehentasuna emanez hautaketa- eta hornikuntza-prozesuak arintzeari.

Osasun arloko Prestakuntza eta Irakaskuntza ar-loan lorpenak:

- Prestakuntza- eta irakaskuntza-**plan integrala de-finitzea eta garatzea, osasun sistema publikoaren ildo estrategikoekin eta helburuekin bat datorrena.** Arlo eta kategoria guztietako eta erakundeko pro-fesionalen ezagutza, trebetasun eta konpetentzia teknikoen eta zeharkakoen prestakuntza-beharren aurretiazko diagnostikoa eginez.
- Lanbide-garapena eta talentuaren fidelizazioa erraztuko dituzten **prestakuntza-ibilbideak disei-natzea**, sustapena, egonkortzea eta lanbide-aintza-tespena lortzeko aukerei lotuta.
- Profesionalei ezagutza partekatzen laguntzea, hainbat pizgarriren bidez. Irakaskuntzako edukia duten plazak definitzea/zehaztea, irakaskuntza eta asistentzia-lanaldia bateratzen dituztenak.
- **Profesionalen parte-hartze aktiboa sustatzea eza-gutzaren sorkuntzan**, harreraren eta hedapenean, eta hautatzeko aukera emateko. Pizgarrietan (irakas-leak) eta ordezkapenak bermatzean (ikasleak) oina-rritutakoa, bai eta denbora eta aitortzen profesionala ere kontuan hartuta (lanbide-garapena, berregiaz-tatzea...).

3- EUSKALDUNTZEA

Erabiltzaileen eta profesionalen hizkuntza politikan lorpenak:

- Euskara zirkuituekin: Zerbitzu guztietako karte-leran euskarazko zirkuitua bermatuko duten pro-fesionalak identifikatuta egongo dira. **Euskarazko arreta-zirkuituak sortzeko dauden gabeziak eta hutsuneak aztertu eta konpontzeko** neurriak ezarriko dituen lantalde bat eratuko da.

- Hizkuntza-politikaren koordinazio eta jarraipen egokia bermatu asmoz, Kalitate eta Hizkuntza Kudeaketarako Zuzendariorde bat izango da Zuzendaritza Nagusian.
- BAME azterketa euskaraz egiteko aukera eskaint-zea, azterketa prestatzeko materiala dohainik sortzea eta osasun-prestakuntzako euskarazko plazak egotea.
- Praktiketako zentro batzuk aukeratzeko (%70etik gorako biztanleria euskalduna duten den herrietakoak, adibidez), euskararen ezagutza kopurua derrigorrezkoa izango da.
- Euskara ikasteko, euskara teknikoa barne, baita A1/A2 maila lortzeko zein bestelako mailetako ulermena egiaztatzeko ere, **laguntza eta liberazioak handituko dira**, ordutegi malgutasuna zein lana eta familia uztartzea ahalbidetzen duten online prestakuntzak barne, plan korporatibo eta ibilbide formatibo indibidual bati lotuak, **non euskalduntzea, trebakuntza eta laguntza eta pizgarri neurriak ezarriko diren, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza gisa erabili ahal izatea bermatzeari begira.**
- Eskakizuna bete ondoko trebakuntzari dagokio-nez, **prestakuntza espezifikoa eskainiko zaie euskarazko zirkuitu eta unitateetan lan egingo duten langileei, eta baita Hizkuntza Eskakizuna izan arren euskaraz arreta eman eta lan egiteko zailtasunak dituztela adierazten duten langileei ere.** Prestakuntza hau lehentasunez lantokian bertan eskainiko da.

Euskararen kontrako eragileek indargabetu dituz-ten lantaldeko lorpenak:

- Euskararen normalizazio prozesuan langileen ja-rrera aktiboa bultzatu asmoz, **lan eta zerbitzu hizkuntza gisa euskara erabiltzen duten pro-fesionalei meritu gehigarri gisa aitortzea** (bes-teak beste, garapen profesionalerako, lekualdatze lehiaketetarako, profesional egoiliarren gaikuntza-ra-ko) egiten duten euskarazko arreta. Horretarako, lan hizkuntza ebaluatzeko mekanismoak ezarriko dira.
- **BAMEz gain, beste egoiliarrei azterketa euska-raz eskaintzea** eta azterketa prestatzeko mate-rialak dohainik sortzea.

- Osasun ikasketak euskaraz irakastea ahalbidetuko da eremu klinikotik, **C1 hizkuntza-eskakizuneko behar adinako plaza asistentzialak sortuz** unibertsitate-ospitale guztietan eta itundutakoetan ere, espezialitate desberdinetan.
- **Egoiliar plaza kopuru zehatz batean euskararen ezagutza eskatzen dela bermatzea**, eta **euskaraz graduatutakoek pizgarriak** izatea.

4- LEHEN MAILAKO ARRETA

Lehen mailako Arreta eta komunitateko arreta indartzeko lorpenak:

- Lehen mailako arretaren lidergoa, autonomia operatiboa eta kudeaketa gaitasun propioa garatzea, **aurrekontu espezifikoarekin**
- Lehen mailako arreta **irisgarria, unibertsala eta gizatiarra bermatzea, 24 x 7 eskuragarria, lurraldeari dagokionez ekitatiboa**. Honi lotutako ekintzak:
 - > Arreta jarraitu eta koordinatuaren eredua ebaluatzea eta diseinatzea.
 - > **Osasun-zentroetako eta Etengabeko Arreta Guneetako taldeak dimentsionatzea eta koordinatzea.**
- Herritarren eta langileen parte-hartzea bermatuko duten organoak sortzea.
- **Lanbide-profiletan ratioak definitzea**, tokiko premien arabera (immigrazioa, Medea indizea, kronikotasuna...), profil bakoitzaren konpetentziagarapen handiena kontuan hartuta, baliabideak eskuratzeko ekitatea bermatzeko (ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da kategoria guztietako ratioak berrikustea) eta **profil profesional berriak sartzea**.
- **Familiako eta komunitateko prestakuntza nahi-taezko teoriko-praktikoa integratzea eta erraztea gradu eta graduondokoetan** eta eduki estrategikoetan urteroko formakuntza.

5- LEHENTASUNEZKO ARLOAK

Osasun azpiegiturretan lorpenak

- **Plataforma logistikoa:** Biltegitratze- eta banaketa-azpiegitura logistiko berriak diseinatzea, baita lehendik daudenak berritzea ere, eta plataforma logistikorako aurreikusitako ustiapen-eredua berriro definitzea profesionalekin batera, eraginkortasun handiagoa lortzeko.
 - > lurretako plataforma logistikoaren ustiapena birdefinitzeko beharra jaso da.
- **Farmazia publikoa:** ez dugu lortu LABentzat garrantzitsua zen eta gure sindikatuaren aldarrikapen historikoa den gai hori aurrera ateratzea. Hala ere, **etorkizuneko garapenatarako atea irekita** utzi dugu
 - > Dauden azpiegitura osagarriak indartzea edo azpiegitura osagarri berriak sortzea, euskal osasun sistema publikoak egoera kritikoei aurre egin ahal izan diezaien; horrela, autokudeaketa sustatuko da, adibidez funtsezkotzat eta/edo estrategikotzat jotako sendagaien eta osasun-produktuen kasuan stock-hausturak ekiditeko edo atzematen diren beste erronka batzuetan.
- **Urte anitzeko finantzaketa baten beharra** jaso da, azpiegituren arloan epe luzearako plangintzak egiteko.